

# Lorez lore



TESTUA ETA ARGAZKIA:  
**Jakoba Errekondo**  
**jakoba@bizibaratzea.eus**

Izan ere, lorez lore gabiltza; egunero lore berri bat ikus daiteke sasoi honetan. Tartean, baita jan daitezkeenak ere. Ez gara euskaldunak lorezale amorratuak; kundi-menduak eta ele ederrak bai, baina lore-loreak tamainan! Orburua (*Cynara scolymus*) eta kuiatxoa (*Cucurbita pepo* var. *pepo*) bai, loretan jaten ditugu, baina gure ahosabaiaren onerako: dasta berri mordoa dugu inguruan, dastatu zain. Jan ditzagun loreak: usaina, ukia, zaporea... Hona saskikada esku-eskura: begonia (*Begonia x tuberhybrida*), baltsamo-belarra edo ilena (*Calendula officinalis*), azuzenak (*Hemerocallis spp.*), Txinako arrosa (*Hibiscus rosa-sinensis*), kaputxina (*Tropaeolum majus*), ekilorea (*Helianthus annuus*), albahaka, (*Ocimum basilicum*), martorría (*Coriandrum sativum*), mihilua (*Foeniculum vulgare*), oreganoa (*Origanum vulgare*), mendaroa (*Origanum majorana*), aza jendea (*Brassica spp.*), erre-faua (*Raphanus sativus*), bioleta usainduna (*Viola odorata*), bioleta handia (*Viola x wittrockiana*), babarruna eta leka (*Phaseolus vulgaris*), ezkaia (*Thymus vulgaris*), belatxeta edo izpilikua fina (*Lavandula angustifolia*), astaizpilikua (*Lavandula latifolia*), izpilikua mina (*Lavandula stoechas*), errukulak (*Eruca vesicaria sativa* eta *Diplataxis tenuifolia*), dama errukula (*Hesperis matronalis*), txikori-belarra edo sorgin-belarra (*Taraxacum officinale*), basabitxi-lorea (*Bellis perennis*), kuiatxo eta kuia (*Cucurbita spp.*), hirusta gorria eta zuria (*Trifolium pratense* eta *T. repens*), atxaparra (*Lonicera spp.*), erromeroa (*Rosmarinus officinalis*), azitraia (*Satureja hortensis*), perraitza edo apo-perrexila (*Anthriscus cerefolium*), ezkia (*Tilia spp.*), etxeko poza edo baltsamina arrunta (*Impatiens walleriana*), porru-tipula (*Allium schoenoprasum*), ezamihilua edo aneta (*Anethum graveolens*), zauri-belarra edo salbia (*Salvia officinalis*), krabelina (*Dianthus caryophyllus*), urkitza edo jasmina (*Jasminum officinale*), luisa-belarra (*Aloysia citriodora*), malba gorria (*Alcea rosea*), urelilia (*Chrysanthemum coronarium*), nabar-lorea (*Centaurea cyanus*), basa-julufraia (*Lychnis flos-cuculi*),



Hirusta gorria (*Trifolium pratense*).

-belarra (*Taraxacum officinale*), basabitxi-lorea (*Bellis perennis*), kuiatxo eta kuia (*Cucurbita spp.*), hirusta gorria eta zuria (*Trifolium pratense* eta *T. repens*), atxaparra (*Lonicera spp.*), erromeroa (*Rosmarinus officinalis*), azitraia (*Satureja hortensis*), perraitza edo apo-perrexila (*Anthriscus cerefolium*), ezkia (*Tilia spp.*), etxeko poza edo baltsamina arrunta (*Impatiens walleriana*), porru-tipula (*Allium schoenoprasum*), ezamihilua edo aneta (*Anethum graveolens*), zauri-belarra edo salbia (*Salvia officinalis*), krabelina (*Dianthus caryophyllus*), urkitza edo jasmina (*Jasminum officinale*), luisa-belarra (*Aloysia citriodora*), malba gorria (*Alcea rosea*), urelilia (*Chrysanthemum coronarium*), nabar-lorea (*Centaurea cyanus*), basa-julufraia (*Lychnis flos-cuculi*),

petenta edo fuxia (*Fuchsia spp.*), uztaoa edo lapaitza (*Rumex acetosa*), papantsea (*Viola tricolor*), amañililia (*Syringa vulgaris*), tagetea (*Tagetes spp.*), oinlodia edo peonia (*Paeonia spp.*), zuhain azenarioa (*Daucus carota*), arrosak (*Rosa spp.*), ilarra (*Pisum sativum*), artoa (*Zea mays*), mendak (*Mentha spp.*), idi-bihotza (*Tulipa spp.*), ziabelar usainduna (*Gallium odoratum*), zamo txikia edo basa azafraia (*Carthamus tinctorius*), borraja (*Borago officinalis*), dragoi-muturra (*Antirrhinum majus*), aingeru-belarra (*Angelica archangelica*), geranioak (*Pelargonium spp.*), bananondoa (*Musa x paradisiaca*) eta sagarrondoa (*Malus x domestica*). Eta, ahaztu gabe, intsusa (*Sambucus nigra*). ■



**endanea**  
garden

943 64 17 10  
[www.endanea.com](http://www.endanea.com)  
Jaitzubia 40, Hondarribia

## Arrosa usaintsuak

Aukeratu zurea!  
Arrosondoetan eskaintza zabala.  
Aukeratu zurea eta ingura zaitez  
arrosen edertasun eta lurri  
paregabeez.

